



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

araba  álava  
foru aldundia diputación foral

---

# ABIAN PLANAREN AURKEZPENA

---

ARABAKO ERRIOXA

# Aurkibidea

Metodologia faseka



## 1. Fasea

Eskualdeko diagnostikoa eguneratzea



## 2. Fasea

Parte-hartze prozesua



## 3. Fasea

ABIAN Plana garatzea eta idaztea

An aerial photograph of a town nestled in a valley. In the foreground, a river flows through a lush green landscape, crossed by a multi-arched stone bridge. A road runs parallel to the river. In the middle ground, a town with numerous houses and buildings is visible. One building has a sign that reads "Alfredo Lizaso". The background features rolling hills and a range of mountains under a clear sky.

# 1. FASEA

Eskualdeko diagnostikoa eguneratzea

# Aztertutako arloak

Arlo nagusiak



Lurraldearen ezaugarriak



Gizartea eta beste sektore batzuk



Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorea



# 2. FASEA

Parte-hartze prozesua

# 3 Parte hartzeko mekanismoak

Emaitzen laburpena

GALDEKETAK

+200

Erantzundako inkestak

56 Mahastizaintzako eta ardogintzako agente

22 Enpresa

123 Herritarra

ENTREBISTAK

62

Egindako elkarrizketak

TAILERRAK

+100

Workshopetako parte-hartzaileak

# Parte hartzen duten agenteak

Eskualdeko gizarte- eta ekonomia-sarearen ordezkaritza zabala

## PUBLIKOAK



## PRIBATUAK



- Agente publikoak
- Merkataritza
- Agente sozialak
- Agente kulturalak
- Hezkuntza zentroak
- Empresa laguntzaileak
- Turismo-sektorea
- Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorea
- Beste agente batzuk

# Eskualdeko AMIA Orokorra

## 1. eta 2. faseetako emaitzen sintesi orokorra

### AHULTASUNAK

- Populazioaren kontzentrazioa
- Masa kritikorik eza (15etik 9, 400 biztanle baino gutxiagokoak)
- Langile kualifikatuen falta
- Digitalizazio hasiberria eta merkataritza elektronikoko mugatua
- Mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearen hauskortasuna, ondoz ondoko krisiengatik
- Errioxako Jatorri Deituraren egitura-ekoizpen handiegia
- Mahastizainen eta upategi txikien errentagarritasun txikia
- Belaunaldi-erreleboaren arazo handia
- Fakturazioa eta irabaziak enpresa-talde gutxi batzuetan kontzentratzen dira
- Eskualdean entitate eragile bat falta da
- "Arabako Errioxa" markaren ezagutza mugatua

### MEHATXUAK

- Udalerrri txikiagoetan establezimenduak desagertzeak duen eragina
- Dibertsifikazio ekonomiko eskasa
- Talentu-ihesa
- Enpresen tamaina txikia
- Ekintzailtza-maila baxua
- Etxebizitzak zaharberritzeko mugak
- Ardo lasaiaren kontsumoaren beherakada
- Errioxa gero eta gehiago erori da merkatu nazionalan eta esportazioan
- Mahasti zaharraren eta mahats-nortasunari lotutako ondarearen galera

# Eskualdeko AMIA Orokorra

## 1. eta 2. faseetako emaitzen sintesi orokorra

INDARGUNEAK	AUKERAK
Partaide izatearen eta errotzearen zentzua	Talentua erakartzea eta gaitzea, prestakuntza-estrategia abangoardista eta berritzaile baten bidez (FP, EDA)
Immigrazioa sendotzen eta integratzen esperientzia duen lurraldea	Enoturismoaren gorakada eta Euskadi premium helmuga enogastronomiko gisa kokatzea
Eredu ekonomiko bakarra (nekazaritza-industria binomioa)	Koordinazio partekatua eta eskualde-ikuspegia hobetzea
Apustu instituzionala	Landa-inguruneetan interesa duten profesionalak erakartzea.
Ardoaren kalitate aitortua eta nazioarteko rankingetan duen garrantzia	Enpresa-jarduera berriak erakartzeko azalera erabilgarria.
Balio handiko terroirs aniztasuna	Arabako Errioxako kalitateko mahatsa balioan jartzea
Bikaintasuneko upategiak eta proiektu berriak	Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorean iraunkortasuna eta berrikuntza bultzatzea
Upeltegi-arkitektura eta ospe handiko ardo-ondare historikoa	Esportazio-merkatuak dibertsifikatzea (Kanada, Mexiko, Latinoamerika, Europako iparraldeko herrialdeak, Asia)
Ardoaren osagarri diren enpresa sendotuen ehuna	Euskal ostalaritzaren eta upeltegien arteko harremana bultzatzea
Produktu turistiko definitua: enoturismoa, gastronomia eta kultura eta nazioarte mailan aitortua	Ardoaren clusterraren inguruan oinarri teknologikoko negozio ekintzaile berriak garatzea
Lurraldean eta historian oso errotuta dauden familia-enpresak	

---

# 3. FASEA

---

ABIAN Plana garatzea eta idaztea

# Estrategia formulatzea

5 formulazio-maila



*Zer lehentasunezko ekintza eta proiektu eraldatzaile bultzatu behar ditugu erronka estrategikoei erantzuteko eta Arabako Errioxaren ikuspegia gauzatzeko?*

*Zer erronka nagusi edo zer aldaketa landu behar ditugu denontzako etorkizun itxaropentsua indartzeko eta bermatzeko?*



*Zeintzuk dira Arabako Errioxaren nortasuna definitzen duten eta beste lurraldeetatik bereizten duten ezaugarriak, baliabideak eta balioak?*

*Etorkizunean nolakoa izatea nahi dugu Arabako Errioxa? Zer eskualde-irudi eraiki nahi dugu kolektiboki epe ertain eta luzera?*

*Zein da eskualdearen izateko arrazoa, zein balio bakar eskaintzen dien bertako biztanleei eta lurralde osoari?*

# Asmo estrategikoa

## Misioa eta ikuspegia



- Arabako Errioxak mundu mailako mahastizaintzako eta ardogintzako eskualde liderra izan nahi du.
  - Mahastizaintzako eta ardogintzako bikaintasun-eredu iraunkor eta oinarritzkoagatik da ezaguna.
  - Lurraldearekin konprometitutako **gizarte- eta enpresa-sare aberats eta lehiakorra** du, eta haren dinamizazioa erreferentziazko helmuga enogastronomiko gisa.
  - Ekintzailetzarako eta negozioetarako **erakargarria**.
  - Horregatik guztiagatik, lurralde **erakargarria** izan nahi du, etorkizunaren alde lan egiten duten pertsona berritzaile eta gaituekin **bizitzeko, lan egiteko eta inbertitzeko**.
- 
- Arabako Errioxaren eredu ekonomiko eta soziala **bikaintasunean, berezitasunean kokatzea**.
  - Ardorako ekoizpen-estrategia bat ezarri, **kalitatean, ondarearen eta paisaiaren balorizazioan eta pertsonen aldeko apustuan oinarrituta**.
  - Arabako Errioxaren **irudia, ospea eta kokapena** hobetzea, herri eder eta biziak dituen helmuga integral gisa.
  - Bertako biztanleei **bizi kalitatea** eskaini eta turistentzat zein negozio eta enpresa berrientzat **erakargarriak** izan daitezen.

# Asmo estrategikoa

## Ezaugarriak



- *Berezko nortasun aitortua*
- *Dibertsifikazio ekonomikoa*
- *Ondare historiko eta artistiko aberatsa*
- *Mundu mailako mahastizaintzako eta ardogintzako eskualdea (ardo eta harekin lotutako industriak)*
- *Balio handiko paisaia naturala*
- *Premium produktua eta helburua*
- *Bizitasun ekonomikoa eta demografikoa*
- *Ardoari lotutako ekonomiaren inguruko talentua eta berrikuntza*
- *Herri biziak eta erakargarriak beren edertasunagatik eta bizi-kalitateagatik*
- *Pertsona atseginak, abegitsuak, beren lurraldeari oso errotuta daudenak eta nortasun-ezaugarriak dituztenak*
- *Erantzukizuna eta iraunkortasuna*

# 3 Ardatz estrategiko

Horietan oinarrituta eraiki dira bai prozesu parte-hartzailea, bai ABIAN Plana

## 1. Ardatza

Lurraldea eta  
gizartea

## 2. Ardatza

Mahastizaintza eta  
ardogintza

## 3. Ardatza

Dibertsifikazio  
ekonomikoa

# 1. Ardatza: Lurraldea eta gizartea

Erronka estrategikoak, ekintza-ildoak eta palanka-proiektuak

## Erronkak



1. Gainbehera demografikoari buelta ematea eta gazteen finkapena sustatzea




2. Giza kapitala garatzea eta leialtzea



3. Etxebizitza eskuratzea erraztea eta oinarrizko azpiegiturak hobetzea



4. Osasun-laguntza eta gizarte-zerbitzuak indartzea



5. Eskualde barneko eta hiriarteko konektibitatea eta mugikortasuna optimizatzea



6. Eskualdeko gobernantza eta koordinazioa indartzea

## Palanka proiektuak







- Eskualdeko etxebizitza-estrategia
- Lezako ospitalea (optimizazioa)
- Oiongo osasun zentroa (jardueren optimizazioa)
- Guardian osasun-zentro bat eraikitzea
- Eskualdeko garraioa (hobekuntzak)
- Klima-aldaketari aurre egiteko neurriak
- Haur eta gazteentzako guneak sortzea

## Bestelako ekimenak

- Ekimen publiko-pribatuak silver economy-n
- Mugikortasun arineko irtenbideak
- Eskatutako profiletara egokitutako prestakuntza-ibilbideak
- Arabako Errioxa marka indartzea eta kokatzea

# 2. Ardatza: Mahastizaintza eta ardogintza

Erronka estrategikoak, ekintza-ildoak eta palanka-proiektuak

Erronkak	
 <p>1. Sektoreari balio handiko eta errentagarritasun iraunkorreko negozio-eredurantz eboluzionatzen laguntzea</p>	<p>A. Sektorearen bilakaera produktiboa eta komertziala bultzatzea</p> <p>B. Mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizle txikiei laguntzea</p> <p>C. Sektorean jasagarritasuna eta berrikuntza bultzatzea</p>
 <p>2. Arabako Errioxa marka bereizi gisa kokatzea</p>	
 <p>3. Belaunaldien arteko erreleboa sustatzea eta mahats-ondarea zaintzea</p>	
 <p>4. Koordinazioa, lankidetzeta eta Mahastizaintzako eta ardogintzako euskal klusterraren / Arabar Errioxako ardo-poloaren (edo foroaren) sorrera sustatzea</p>	
 <p>5. Sektorearen gaitasuna ziurtatzea eta talentu espezializatua eta egokitua garatzea</p>	
 <p>6. Merkatuen dibertsifikazioa bultzatzea</p>	

## Palanka proiektuak

- EDA Drinks & Wine Campus
- Mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreko klusterra / poloa (edo foroa)
- Arabako Errioxaren posizionamendua eta sustapena
- Belaunaldi-aldaketarako programak

## Bestelako ekimenak

- Sinplifikazio administratiboa
- Upategien zerbitzu komunaren poola
- Sektorearen behatokia
- Sektorearen lehiakortasuna hobetzea

# 3. Ardatza: Dibertsifikazio ekonomikoa

Erronka estrategikoak, ekintza-ildoak eta palanka-proiektuak

## Erronkak



1. Turismo-eskaintza desestazonalizatzea eta dibertsifikatzea, premium ikuspegia ziurtatuz



2. Eskualdearen eta bere eskaintza turistikoaren ikusgarritasuna eta posizionamendu digitala hobetzea



3. Ondareari eta baliabide immaterialei balioa ematea turismorako



4. Dibertsifikazio produktiboa eta negozioen sorrera bultzatzea



5. Eskualdean berrikuntza eta ekintzaitza sustatzea



6. Lurzoruaren erabilgarritasuna eta garapen estrategikoa ziurtatzea

## Palanka proiektuak

- Turismoa bultzatzeko eta dibertsifikatzeko estrategia
- Ekintzaitza berritzailea eta FabLab bat sortzea
- Inbertsio berriak erakartzeko estrategia
- Enpresa-jardueretarako lurzorua gaitzea

## Bestelako ekimenak

- Ondarea identifikatzeko eta berriz baloratzeko plana
- Zerbitzu anitzeko establezimenduen proiektu pilotua
- Landa-negozioak sortzeko eta transmititzeko programa

# Proiektuaren gobernantza eredua

Etengabeko solaskidetza Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarekin, bai eta proiektuaren gainbegiratze eta jarraipenerako inplikaturik dauden gainerako erakunde eta instituzioekin ere

Agente  
pribatuak

Administrazio  
publikoa

ABIAN

Idazkaritza  
teknikoa  
(Jarraipenaren  
arduraduna)

Gizartea